

1 Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak

Jon Sarasua

HUHEZI. Mondragon Unibertsitatea

jon_sarasua@huhezi.edu

Sarrera-data: 2012-04-04 | Onartze-data: 2012-06-20

Laburpena. Kulturgintzaren inguruko hausnarketa propioa eskaintzen du Jon Sarasuak artikulu honetan. Alde batetik erakunde publikoei begira, eta, bestetik, euskararen kulturgintzako erakunde sozialei zuzendua. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako ikerlan batean oinarritzen da, zehazki, 127 laguni eginiko elkarriketetan bildutakoa. Ikerlan horren emaitza testuinguratzeko euskal kulturgintzaren aurre-markoa definitzen du (hizkuntza-komunitatearen zentralitatea, instituzioen analisia, -kapitala, administrazio publikoa eta gizarte zibila-), markoa zehazten du (hiztun komunitatearen motibazioak, kultura politikaren oinarriak, eragileen analisia), eta, azkenik, dozena bat estrategia proposamen modura eskaintzen ditu.. • *Hitzgakoak:* *Hiztun-komunitatea, kulturgintza, estrategia, motibazioa, ekosistema.*

Abstract. **The results, conclusions and proposals of a qualitative study of cultural life.** In this paper, Jon Sarasua offers a personal reflection on cultural activity. On the one hand, he takes a look at the public institutions, and on the other, the social organisations devoted to Basque language cultural activity. It is based on a piece of research funded by the Charter Provincial Council of Gipuzkoa, and specifically deals with what was gathered in interviews given by 127 people. To put the results of this research into context, he outlines a preliminary framework for Basque cultural activity (the centrality of the speech community, analysis of the institutions –capital, public administration and civil society–), he specifies the framework (the motivations of the community of speakers, the bases of cultural policy, the analysis of the players), and finally offers about a dozen strategies by way of proposal.. • *Key words:* *Community of speakers, cultural activity, strategy, motivation, ecosystem.*

SARRERA

I Eskerrik asko. Plazer bat da foro honetan hitz egitea. Hasteko, esan nahi nuke ez natorrela bakarrik; *Sorguneak* ikertegiak lagundurik nator zuen aurrera, egindako lan baten ahotsean.

Mingainari kosk egiten jardungo dut gaurko hitzaldian, besteak beste, begiratu soziolinguistiko edo ekolinguistiko batean kokatzen delako egindako lana, baina gaur ikuspegi zabal hori aletzeko edo azaltzeko betarik ez dugulako. Aldi berean, horko premisa batzuk plazaratu eta ulertu gabe zaila da guk kulturgintzari egiten diogun begiratu ulertzea, eta gainera aipatuko ditut gauza batzuk.

Esan liteke azken aldian euskalgintzan, edo oro har, euskaltasunaren norabidean ilunaldi estrategiko batean gaudela. Hau da, estrategia-mailako lausoaldi batean gaudela, bost hamarkadako zikloaren ondoren. Esango nuke, baita ere, euskalgintzako erakundeek eta erakunde publikoek orain dutena baino fundamentu handiagoa behar dutela. Hor ditugu zain galderak hiztun-komunitatearen ikuspuntutik, adibidez, zein izan behar duen gure erakundetze-estrategia. Eta ez naiz erakunde publikoek ari. Edo zein izan behar duen gure ereite-estrategia, edo hedabide-estrategia edo kulturgintza-estrategia.

Hemen kulturgintzaren estrategiez arituko gara, horretarako material batzuk eman nahian. Begiratu organikoa izango da, hau da, ez da teoria mailako garapenik izango, ez interesatzen ez zaigulako, baizik eta saiatuko garela *zer egin* galderari erantzuten. Eta hori organoetan egiten da, pentsamendu organikoa garatuz. Jakintza-guneen zerbitzurik praktikoa pentsamendu organikoa ekoizten laguntzea da, organueta begira, organuetan ari direnekin batera.

Egin dugun ahalegin apur honetan bi esparruri begira jarri gara *zer egin* dioen galdera horrekin. Alde batetik, erakunde publikoei begira eta, bestetik, euskararen kulturgintzako erakunde sozialei begira. Dena dela, nire hitzen bukaerarako utziko ditut estrategiak, eta aurretik, ea ez naizen gehiegi luzatzen, horiei markoa jartzen jardungo dut ahozko jardunean hainbat ideien bueltan.

Orain dela zortzi bat urte, beste alor batzuetan lanean genbiltzala, hainbat eragileren artean sumatu genuen laino beltz batzuk antzematen zirela euskal kulturgintzaren sorkuntzaren ortzi-mugan. Eta ez genuela arkuperik, ez euritik edo ekaitzetik babesteko, baizik eta gutxienez euria ari zuen bitartean solasteko: nola gaude? Nora goaz? Zer gertatzen ari da hemen? Ikusten zen ez geneukala espazio minimorik horretarako. Esate baterako, hedabideak gure sorkuntzak izan behar zuen tratamendurako

OHARRA

Testu hau Soziolinguistika Klusterrak antolatutako V Euskal Soziolinguistika Jardunaldian ahoz emaniko izen bereko hitzaldiaren transkripzioan oinarritzen da, eta ez ditu ponentzia idatzi baten ezaugarriak. Jardunaldia 2012ko otsailaren 24an burutu zen. Haren bideoa helbide honetan ikus daiteke:

<http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia/2011/bideoak>

**Esan liteke azken
aldian
euskalgintzan,
edo oro har,
euskaltasunaren
norabidean
ilunaldi
estrategiko
batean gaudela.
Hau da,
estrategia-
mailako
lausoaldi batean
gaudela, bost
hamarkadako
zikloaren
ondoren.**

irizpiderik gabe genituela, edo euskal kantagintzaren irismena galtzen ari ginela belaunaldi berrietan, edo eskoletan dantzari buruzko irizpiderik gabe geundela edo irakaskuntzan corpus minimorik gabe arlo gehienetan. Horrela abiatu ginen agora bat sortu nahian, graduondoko forma hartu zuena. Baina graduondoa eskola bat izan da, ezta? Falta zitzaguna zen debate-leku bat, agora bat, berrogei urteko esperientzia belaunaldi berriari transmititzeko, eta aurrera begira eztabaida sortzeko. Hortik etorri zen hurrengo pausua. Graduondo haren inguruan jakintza-gune bat sortu nahian hasi ginen. Ez formazio titulu bat soilik, baizik eta sorkuntza-, lanketa- eta transmisio-gune bat gure behar horiei begira.

Hala hasi ginen Gipuzkoako Foru Aldundiko aurreko taldearekin harremanetan, Maria Jesus Aranbururen taldearekin irizpideez eta politikaz lasai hitz egiten saiatu ginen, eta lanerako tartea eman zigun bide horrek. Hortik sortu zen gaur aurkeztuko dudana ikerketa-lana. Ikerketaren landa-lana egiteko 127 pertsona ingururengana jo genuen, eta hori du ikerketa honek bere oinarrian. Hemen azalduko dudana ikerketa kolektibo hori baino gehiago da, azken aldian lantzen ari naizen idazlan bateko ideiak ere tartekatuko ditut. Baina beti ere asmo nagusia ikerketa zabal haren emaitza kokatzea da. Iparra zera izan da: estrategia batzuk formulatzea, behin behinekoak, proposamen moduan. Aurretik, hala ere, markoa kokatzen emango dut denbora gehien, hau da, euskal kulturgintza ulertzeko hainbat oinarri azaltzen. Nolanahi ere, oinarri horiek jarri aurretik, aurre-marko bat ere jarri nahi nuke, gure begiratu kokatzeko. Beraz, aurre-markoa, markoa eta bukaeran dozena bat strategiaren aipamena.

AURRE-MARKOA

I
*** Gure aurre-markoaren elementu bat hizkuntza-komunitatea da, hiztun komunitatea. Hizkuntzaren garapena ez dago ulertzerik hiztun komunitatearen kontzeptua eta bere dinamiken terminoak ulertu gabe. Lanaren egileok euskal kulturgintzari ikuspegi horretatik begiratzen diogu. Hau da, kulturaren lurralde begiratu sailhesten dugu, ez gara “cultura vasca” delako kategoriaz ari, gure begiratu intelektuala eta organikoa bestelakoa da. Zilegi izan litezke kategoria eta begiratu desberdinak, eta egia da ez daitezkeela erraz bereiztu, begiratu bakoitzak bere kontraizanak dituela, baina gure hautua edo foko aitortua da: euskal hiztun komunitateari dagokion kulturgintzaren begiraturik hitz egingo dugu. Begiratu horretatik, jakintza soziolinguistiko eta ekolinguistiko bat behar duzu euskal kulturgintza edo hizkuntza bera garatzeko politika publiko edo estrategia sozial egokiak bideratzekotan.

Aurre-markoaren bigarren elementua analisi instituzionala edo erakunde-analisia da. Hau agertzea interesatzen zait gero esango ditugun gauza batzuk kokatzeko. Askotan erakunde-analisia aipatzen dugunean burura etortzen zaiguna erakunde publikoen multzoa da. Baina gizarte baten antolaketa, ahalmena eta boterea ez daude erakunde publikoetan bakarrik. Askotan, euskara politikarekin lotzeko bidean, badugu politikaren eta erakundetzearen ikuspegi sinple xamarra, eta iruditzen zait gizarte baten erakunde-analisi zabal xamar bat edukitzea beharrezkoa dela gure estrategiak ondo kokatzeko.

Asko hitz egin da euskara despolitizatu beharraz. Baina euskara sakonki politikoa da sakonki *polistikoa* delako; *polisa*, herria kudeatzea eta pentsatzea bada polistika, gure *polisaren* korapilo zentraletakoa gure hizkuntzaren kinka da. Hitz hori erabili dut politikaren adierarik zabalen eta jatorrizkoena esateko, bestela ‘politika’ esaten dugunean berehala baitoakigu burua indar metaketa elektoraleko dinamikara eta alderdien jokora. Bai, politikoa eta polistikoa da hizkuntzaren gaia, baina kontuz alderdien indar metaketarako gai eta tresna izatearekin, eta edozein kasutan hiztun komunitatearen erakundetzearen gaia konplexuagoa da.

Simplifikatzeko esan liteke hiru gune, hiru botere-iturri, bereiz litezkeela gizartean. Bata da kapitala, logika lukratiboa nagusi duela. Bigarrena estatua da, bere forma guztietan, gobernu zentraletik udaletxetarraino, logika nagusi funtzionamendu administratiboa duela. Eta hirugarrenik, gizarte antolatua, logika lukratibo eta burokratikoetik haragoko logikak dituzten duen egituratze sozial, kultural, asoziatibo edo nolanhikoak, eta hortik sortzen den ahalmena, boterea eta erakundetzea. Hiru gune horien marrazkia oso asimetrikoa da, eta gainjarriak daude, eta hibridazioak dira nagusi eta abar.

Honetan luzatu gabe, konplexua baita, hiruko eskema bat badugu gure gizartean, eta are gehiago izan liteke aurrerantzean, gaur egungo pentsamendu eta gogoeta batzuk hortik doaz, eta hortik joan liteke euskal errealitateetik sor dezakegun pentsamendu politikoa ere neurri batean. Bereziki, hirugarrena, hau da, gizarte antolatua, gizarte zibil egikaritu eta ahalmendua, kontuan izateko errealitatea da. Eskema hori kontuan hartu gabe guk ez dugu gutaz gauza asko ulertzen.

Esate baterako ikastolak zer dira? Ez dira kapitaletik edo logika lukratibotik sortu, ezta estatuaren logikatik ere. AEK kapitalaren logika lukratibotik sortu zen ala estatuaren logikatik? Gure gizarte-erakundetzean gertatzen diren gauza asko ez dira ulertzen gizarte antolatuaren logikamultzo eta hirugarren ahalmen-iturri hori kontuan izan gabe. Horretaz leku batzuetan hitz egiten eta eztabaidatzen ari dira etorkizuneko gizarte

Gure hautua edo foko aitortua da: euskal hiztun komunitateari dagokion kulturagintzaren begiratutik hitz egingo dugu. Begiratu horretatik, jakintza soziolinguistiko eta ekolinguistiko bat behar duzu euskal kulturagintza edo hizkuntza bera garatzeko politika publiko edo estrategia sozial egokiak bideratzekotan.

eredu orekatuagoaz, eta honetarako gizarte antolatuaren garrantziaz. Ikuspegi unibertsal batetik Euskal Herriaren berezitasuna bada gizarte antolakuntzaren ikuspegitik sortutako ahalmen-gune eta botere egiturak izatea gizarteko funtzio neuralgikoetan, munduko leku askotan ez bezala. Gure bailaran, adibidez, kooperatibak, unibertsitatea, kultura-ekoizpena, hedabideak, dena gizarte-logikatik sortutakoak eta bertako protagonisten botoaren esku daudenak dira. Hori atipikoa da munduan, baina gizarte zibilaren boteretzeaz mintzo direnak arreta jartzen dute. Euskal Herria hartzen badugu, hezkuntza lanaren zati esanguratsua, produkzio industrialaren zati bat, euskalgintzaren inguruko erakunde gehienak eta abar, gizarte antolatuko botere-guneetatik sortuak dira, eta uste dut etorkizuneari ere hor debate ideologiko eta politiko interesgarria dagoela. Gai luzea litzateke, baina gure kasuan, euskalgintza hortik begiratzen ez badugu ez dugu ia ezer ulertzen. Euskararen sukaldean azpiegituraren, egikaritzearen, ahalmentzearen zati handi bat gaur egun hor dago, gizarte antolatutik sortutako erakundeetan. Hori ikustea komenigarria da gero estrategietan aipatuko diren hainbat gauza kokatzeko.

Aurre-markoa osatzen segitzeko, aipa dezadan *jarraidura* eta *irekidura* kontzeptuen arteko oreka eta tentsioa. Kulturaren ibilbidean *jarraidura* gizakion sen kultural berezkoa da; jaso dugun fluxu horren parte izatea eta fluxu hori pasatzea. Beste aldetik, *irekidura*, hau da, aldiari aldiko ukitzeak, aldamenen eta gainean eduki ditugun eragin guzti horiekiko kontaktua, jasotzea, liseriketa, moldaketa. Gure izaera etenik gabe *jarraidura* eta *irekiduraren* arteko tentsioan birproduzitzen da, gure material osoa nahasketa hori da; hori da gure hizkuntzaren corpusa, eta bai beste material kultural guztia ere. Gure material kulturala ez da esentzia bat, baizik eta etorri izanaren ondorioa, emaitza dinamikoa. Binomio horretan modu sortzailean kokatzea da kontua, aurrera begira ere.

Gure fokua zedarrizteko esango dugu *kulturagintza* zerbait zehatzari deituko diogula. Badakigu kultura kontzeptua zabala dela: hau da, nire janzkera ere kultura da, eskuetan dudana boligrafo hau kultura da, jan dudana kultura da. Baina itsaso zabal horretan gure objektua pixka bat zedarrizteko esan dezadan kulturagintza deituko diogula *entretanimendu*, *gogoeta* eta *sentsazio estetikorako berariazko produktuen ekoizpen eta hedapenari* gutxi gorabehera. Konparazioa egiteagatik kirola dei geniezaioke *ahalegin fisiko eta psikiko bidezko fikziozko lehia entretenigarriari* gutxi gorabehera, ezta? Antzerako mugatze bat eginez, gure ikerketa honetan helburu dugun objektuan 'kultura' baino gauza zehatzagoaz ari gara: *entretanimendu*, *gogoeta* eta eragin estetikorako berariazko produkturen ekoizpen eta hedapenaz. Literaturaz, kantagintzaz, musikagintzaz, bertsolaritzaz,

arte eszenikoez eta abarrez ari gara, berariazko sorkuntza mota horretaz. Kulturgintzaren alorraren barruan, ez dugu hainbeste jardungo euskal kulturgintzan eragiten duten beste eragileren inguruan, hedabideez, corpusaz eta abarrez. Euskal kulturgintzaren sorkuntza-aparatuan jarri dugu arreta gehiago.

Bigarren zedarritzea eginez, gure hautu intelektual eta metodologikoa euskal kulturgintza deitzen diogun hori hiztun-komunitatearen begiratutik egitea. Hau da, euskaratik eta euskal hiztun komunitatetik sortzen den sorkuntzaz ari gara.

MARKOA

I

Aurre-markoa jarri eta gero oinarri batzuk jarriko ditut ondoren, bukeran datozen estrategiak ulertzeko, *zer egin?* galderari begira jartzen hasteko.

Euskal kulturgintzak hiztun komunitatearen gasolina sinbolikoa ekoizten du

Hizkuntza-komunitatearen biziberritzean kulturgintzak edo bere sorkuntza-aparatuak funtzio kualitatiboa betetzen du. Euskararen komunitateari badario sorkuntza bat doinuan, soinuan letretan, irudian, jaian. Eta horrek, bereziki hizkuntza-komunitate gutxituetan funtzio bat du hiztun-komunitatearen ametsa, bizinahia eta auto-irudia elikatzeke. Nolabait esanda, amets horren erregaia sortzen da neurri batean bere kultura-sorkuntzatik. Azken aldian dexente gabiltza munduko beste hiztun-komunitate batzuekin tratuan, formazioan eta abar, eta hartu-eman horietan asko azpimarratzen dugu azken berrogeita hamar urteko loraldi honetan gogo-aldarteak izan duen garrantzia: instituziorik ia ez geneukan loraldiaren oinarriak jarri zirenean baina hor gogo-aldarteak, aspektu emozional eta kualitatiboek garrantzi handia izan zuten, eta kulturgintzak bere eragina izan zuen horretan. “Euskara, zugar dago gorderik mendez mende, egoki, euskaldun gogo” kantatzen genuen nire belau-naldiko haurrok hasierako ikastoletan. Edo Gabriel Arestiren hitzak, zer esaten genuen oso garbi jakin gabe “ez dugu zaldirik ez gara zaldunak; ez dugu abererik ez gara aberatsak, euskara guk dugu”, baina aldi berean zer esaten ari ginen sumatuz. Zuzenago edo zeharrago, kulturgintzak, sorkuntzak, elikatu egiten du hiztun-hautua. Hori da hitza, elikatu, hiztun-hautua elikatzen du, gure komunitate-kokapena. Eta elikatu du lanerako erabakia gure belaunaldiko jende askorengan. Hiztun-hautua, komunitate-kokapena, lanerako erabakia.

***Ikuspegi
unibertsal batetik
Euskal Herriaren
berezitasuna
bada gizarte
antolakuntzaren
ikuspegitik
sortutako
ahalmen-gune
eta botere
egiturak izatea
gizarteko funtzio
neuralgikoetan,
munduko leku
askotan ez
bezala.***

Gera nadin lehenengoarekin: hiztun-hautuaren kontzeptuarekin. Hau nolabait lotuta dago nire ustez deserosoa den tesi batekin; gure koiuntura aztertzeko deseroso xamarra den tesi batekin. Hau da tesia: mende honetan, gure belaunaldian —eta gure haurren belaunaldian— hiztun-hautu subjektiboa izango da giltzarri nagusienetakoa hizkuntzaren kinkan. Ez bakarria, baina bai errealitatearen osagai inportantea.

Begiratu hau partziala da, eta badakit alderdi subjektibo hau azpimarratzean batzuk asaldatu egiten direla, baina iruditzen zait ikusi behar dugula nondik ari garen likidua galtzen; pasa dezakegu beste 30 urte planteamendu maximalistak egiten, izan behar lukeenarenagatik frustrazioa bizitzen eta abar. Planteamendu politikoak garrantzitsuak dira, baina desioez aparte, prospektiba serio xamar bat ere behar dugu. Prospektiba ariketa etengabera egin behar dugu datorrenari buruz, gure seme-alabei datorkienari buruz, ez nahiko genukeenaren arabera bakarrik. Adibidez, *klik* eta *zapping* mundu honetan, eta biziko dugun gizarte-motan, hautatu egin beharko dugu, guk —eta gure hurrek— euskarazko klikak hautatu egin beharko ditugu. Eta euskaraz bizitzea, neurri batean, hiztunen hautua izango da. Badakigu askoz baldintzamendu gehiago daudela eta botere-trama konplexua dela. Baina prospektiba eginez, planteamendu politiko maximalistenean ere sartu beharko dugun zerbait da hautu-osagai hori neurri handi batean, kultura kontsumitzerakoan, adibidez, edo hizkuntzaren erabileraren egoera erreal askotan.

Ikusirik oraindik masa kritiko txikiegi dugula horrelako planteamendu batean aurrera eroso egiteko, eta, gainera, masa kritiko horrek ere hizkuntzaren benetako mintzo-ahalmena nahiko eskasa duela, eta erdarek potentzia gehiago dutela gudan, uste dut etorkizuneko gako bat dela jakitea nola eta zein estrategiaren bidez izango garen gai gure motibazioaren biziberritzea bermatzeko. Motibazioa, ezagutza eta erabileraren kate osoarena.

Motibazioa mundu bat da gutako bakoitzaren kasuan, baina sor daitezke motibazio-multzo batzuk, analisisan apur bat laguntzeko. Nonbaitetik hasteko bost motibazio-ildo aipatuko nituzke:

- 1. Fluxu-motibazioa.** Jarraidura aipatzean aipatu dugun sen kultural hori da, gudan pisu erlatibo bat izan duena. Jaso duguna hurrengoei pasatzeko bulkada primario hori.
- 2. Motibazio pragmatikoa.** Hizkuntza praktikoa eta beharrezko izateak dakarkidan motibazioa. Motibazio hau inauratu eta behingoz gure egoera 'normaltzeko' bulkadak etengabeak dira. Motibazio honetan oinarritu nahi izatea beharrezkoa da, eta asmo onekoa,

baina gauza jakina behar luke gure egoeran ez dela aski, eta mende honetan ez dela aski izango, belaunaldien motibazio-prospektiba apur bat egiten badugu.

3. Hirugarrenari **balio itsatsia** deituko nioke. Fluxu-motibazioa eta motibazio pragmatikoa hartuta, honek ez du aurrera egiten. Nire ondorengo zuzenen larruan kokatzen naiz, edo nire larruan bertan. Ingelesak ematen didan kultura-eskaintza askoz handiagoa eta hobea da, sentitzen dut. Berdin gaztelaniak ematen didana ere, oro har. Eta ingelesez eta gaztelaniaz badakit, eta jakingo, nire ondorengoek. Hori horrela izanda, eta nire semearentzat ere hala bada, zer ematen dit euskarak beste horiek ematen ez didatena? Edo zer biziartzten dit euskarak beste horiek biziartzten ez didatena? Galdera horren inguruan kokatuko nuke euskararen balio itsatsiaren motibazio multzoa, saihestu gabe fluxu-motibazioa eta motibazio pragmatikoa. Batek esan dezake, esate baterako, euskarak ematen diola harreman-mundu bat, sorkuntza-mundu desberdin bat, eraikuntzan dagoen mundu bat; ematen dizkio zirkuitu desberdin batzuk. Euskarari itsatsitako balio mota horiek determinanteak izan dira ziurrenik gela honetan gauden gehienontzat, euskaraz bizitzeak dakarkigun ahal-egin-tentsio hori hainbat urtetan egiteko. Balio itsatsi horiek gaur egun trama, zirkuitu eta sare batzuetan egikaritzen dira, eta horiei adi egotea berebizikoa da. Horietan badago erreprodukzio-balio garrantzizko bat, pistak ematen dituen.

4. Laugarrena da azaltzeko zailena egiten zaidana, akaso, eta deitzen diot **paradigmaren motibazioa edo legamia**. Hau ez da denena, partziala izan daiteke, edo batzuen. Jende askorentzat aipaturiko hiru motibazio-moduez gain badago beste bat da. Aurreko hiru motibazio horiek pertsona batzuen kasuan ez ziratekeen aski izango, hizkuntza beste amets zabalago baten gako izan ez balitz. Euskara bestelako mundu baten ametsaren garraiatzaile ere izan da askorentzat, paradigma zabalago baten apustu. Euskaltzale eragile batzuentzat, beren instrukzio-hizkuntza erdara zen, hori praktikoagoa zuten, baina euskara beren ametsaren hizkuntza zen, beste balio batzuen, beste gizarte-irudikapen batena. Egun, paradigma ekologiko zabalagoari lotuta agertzen ari zaigu hizkuntzaren ekologia. Zenbait geruzatan halako motibazioak eutsi dio hiztun-hautuari, eta etorkizunean ere ikusi behar da motibazio-putzu horretatik ura etorriko den.

5. Bosgarren aipatuko dut **mintzoaren ahalmena**. Motibazio-multzoa baino gehiago dimentsio eta faktore bat da. Hizkuntzak gudan duen edo hizkuntzarekin dugun ahalmen espresiboaz ari naiz, gure min-

Zuzenago edo zeharrago, kulturgintzak, sorkuntzak, elikatu egiten du hiztun-hautua. Hori da hitza, elikatu, hiztun-hautua elikatzen du, gure komunitate-kokapena. Eta elikatu du lanerako erabakia gure belaunaldiko jende askorengan. Hiztun-hautua, komunitate-kokapena, lanerako erabakia.

tzoaren gaitasun espresibo, komunikatibo eta estetikoaz. Hizkuntza espresatzeko da, esatera iristeko, etengabe olioztatu beharreko motorra. Badu bere pisua faktore horrek, eta arlo horretan erdarek duten potentzia espresiboa handia da gure belaunaldian eta hurrengoan.

Motibazio-multzoak aletzea ez da gaur kontua eta hemen balio itsatsiaren zatia azpimarratuko nuke, kulturgintzaren gaiari lotuta. Esate baterako, “ez dok hamahiru” gabe, idazle, bertsozintza edo rock erradikalik gabe, gasolina eta erregai sinboliko hori guztia gabe, gaur ez ginateteke hemen egongo gutako gehienok. Hiztun komunitatearen etorkizuneko irudikapenerako ere zer pentsatua ematen digu.

Kultura-politikaren oinarriez

Pasa diren urteetan izan dugun kultura-politikak pentsamendu homologagarriak erabili ditu azken hamarkadetan. Homologatuak alegia, inguruko beste politika askorekin erkatuak eta erkagarriak. Izan dugu kultur politika, esate baterako, azpiegiturak jarri dituen, ekoizpena eta sustapena bultzatu dituen, orkestra sinfonikoak bultzatu dituen, kutsu unibertsaleko ekitaldi handiak finantzatu dituen edo museoak egin dituen; hainbat gauza egin dituen eta horien artean euskal kulturgintza lagundu duena, normala den moduan.

Izan dezakegu kultura ulertzeko sentsibilitate burgesagoa (musika hamabostaldia, orkestra...) izan dezakegu sentsibilitate garaikideagoa (Tabakalerako ametsak), izan dezakegu sentsibilitate *glamour*zaleagoa (zinemaldia), izan dezakegu sentsibilitate liberalagoa, esaten duena gure diru publikotik interbentzio txikiagoa egin beharko litzatekeela kulturgintzaren alorrean, izan dezakegu ikuspegi *underground*agoa edo ikuspegi herrikoia. Edo denak batera. Hori debatitu liteke. Ez da hori kontua. Kontua da, hemen, hizkuntza minorizatu baten bizi-kinka bere politikaren korapiloan duen herri batean bizi garela. Eta kinka horretatik pentsatu behar dugula, hasteko, kultura-politika. Baldin eta egia bada herri honetako erakundeek euskararen garapena aitortzen dutela herri honen helburu publiko eta politiko garrantzizko bezala. Hori da gaia. Eta hori esan eta gero, aztertu kultura-politikatako aurrekontuak.

Zentzu horretan, gure ustez, hizkuntza-komunitateen dinamikak ulertzen dituen soziolinguistika-ekolinguistika batetik pentsa liteke zentzu apur batez euskal kulturgintzaren biziberritzea. Eta horrek esan nahi du kategoriak, kontzeptuak, sailkapenak, hizkuntza biziberritzeko jakintzatik pentsatzea. Horrez gain, jakina, beste jakintza eta ikuspegi pila bat beharko dugu.

Duela urte batzuk Eusko Alderdi Jeltzalearen kultura-ponentzian gauza berri batzuk esaten zirela ikusi genuen. Markel Olanok zuzendu omen zuen ponentziaren arabera, euskal kultura krisian dagoela aitortzen zen, gehiago inbertitu behar dela horretan eta astindu bat eman behar zaiola. Hori irakurrita, eta kointzidentzia batzuk susmatuz, gure irakurketa mahai gainean jartzera joan ginen. Bloke politiko guztien aurrean gaia hitzun-komunitatearen begiratutik planteatu liteke, alderdiak alderdi, hitzun komunitatearen ikuspegi politiko eta *polistiko* beregainagotik.

Gerta daiteke planteatzen dena deserosoa izatea, jakina. Guk gure lanean planteatu duguna bereizkuntza kontzeptual batzuk egitea da. Oinarrizkoa da bereiztea lurralde berean ematen diren eremu desberdinak. Ez da gauza bera hitzun-komunitate minorizatu batean funtsezko funtzioa betetzen duen produktu edo ekoizle baten zeregina, eta munduko hizkuntza-komunitate handienetako batean ekoizten duenarena, nahiz eta biak lurralde berean egon. Ez dira gauza bera duten merkatu potentzialean, ez betetzen duten funtzioaren muinean, ez behar duten politika publikoan, gauza gehienetan ez dute zer ikusirik lurralde berean gertatu litezkeen hainbat sorkari kulturalak.

Berbazko euskarazko sorkuntza, berbazko ez-euskarazko sorkuntza, eta ez-berbazko kultur sorkuntza bereiztea interesgarria da, analisiei begira eta erabaki organikoiei begira. Horietako bakoitzak tratamendu berezitua behar du, politika publikoaren aldetik ere. Honek badakar halako inarrote edo astintze politiko bat azken hamarkadatan izan ditugun eredu batzuen aurrean. Planteatzen du berbazko euskarazko sorkuntzak badituela desafio aski lodiak.

Euskal kulturgintza hau elementu sentsiblea da, garrantzi handikoa hizkuntzaren gerorako. Bere ezaugarriak ditu, dimentsionamenduan, baldintzetan, metabolismoan. Ez du zertan denean maila estandarra eman beharrik. Akaso dimentsio batzuetan ahula da, beste batzuetan nerbio edo jenio berezia du; ez du kanonak betetzeko aukerarik beste batzuetan. Sorkuntzarako pizgarri bereziak ditu, kontsumitzeko masa kritiko txikia dauka eta merkatu-baldintza eta gizarte-ezaugarri ezohikoak ditu.

Kulturaren aurrean kokatzeko moduz ere esan nahi nuke zerbait. Ohikoa da gizartearen norabidea sinplifikatzea kanpotik datorkiguna magnifikatuz eta ildo horietara moldatu behar dugula esanez. Gurean etengabeko kontua da jarrera esnob erraldoi hori. Adibidez, gizarte joeretan, pelikula osoa ikus liteke patroi honetatik: “EEBBetatik eta mundu garatutik halako gizarte-joerak datoz, gurean ere nagusi izango dira, eta horietara moldatu behar dugu”. Patroi hori bistatik ez galtzea egokia da, baina partziala. Globalak omen diren joerekin batera, gure zirkuituen

Pasa diren urteetan izan dugun kultura-politikak pentsamendu homologagarriak erabili ditu azken hamarkadetan. Homologatuak alegia, inguruko beste politika askorekin erkatuak eta erkagarriak.

Zentzu horretan, munduko joerekin eta gureekin surf egiten jakin behar dugu, bai kulturgintzan eta baita tendentzia soziologiko handietan.

taupadak zein diren ere behatu behar dugu, horietan egon bailitezke gure dinamiken gako erreal batzuk. Zirkuitu horiek hor daude eta gauza batzuetan desberdinak dira eta potentzialak dituzte. Hor, gure soziologia txiki horretako gakoetan daude gure estrategiarako helduleku batzuk.

Zentzu horretan, munduko joerekin eta gureekin surf egiten jakin behar dugu, bai kulturgintzan eta baita tendentzia soziologiko handietan. Eta mundutik datozen joera handietan ikusi zer hartu nahi dugun, zer berritu nahi dugun, zer saihestu nahi dugun, zer liseritu nahi dugun, zer aldatu nahi dugun, zer ukatu nahi dugun, zer kopiatu nahi dugun, zer hobetu nahi dugun. Aditz batzuk joan dira hemen: zer hartu, zer berritu, saihestu, liseritu, aldatu, ukatu, kopiatu, hobetu. Hori egitea da interesgarria guretzat. Eta guk hori egitea da interesgarria, izatekotan, munduarentzat.

Beraz, gure estrategiak pentsatzeko munduko joerak eta gure dinamika eta potentzial propioak miatu behar ditugu lupaz, biak. Ez dugu gure garabideak bilatzen asmatuko euskal komunitatearen ezaugarri bereziak ez baditugu aintzat hartzen. Batzuetan joera globalak indartzeko edo osatzeko, beste batzuetan ukatzen saiatzeko... Urrunekoa ikusteko arazoak dituenari miopea esaten zaio, eta gertukoa ikusteko arazoa duenari hipermetropea. Soziologia miopea edo hipermetropiakoia ez egiteko betaurreko bifokalak behar ditugu, urrutiko tendentzia handiak eta bertako potentzial txikiak ikusteko gai izango diren betaurreko bifokalak.

Kulturgintzari begiratzerakoan eta, oro har, geure euskaltasunari begiratzerakoan hiru multzo egingo nituzke:

1. Kulturgintzan jartzeko jarrera **autozentratu dinamikoa** deituko nioke lehenari. Zentroa norberegana jartzen du, eta norbere zentro horretatik datorrenaren aurrean eta gertatzen ari den horren guztiaren aurrean galdetzen du zer egin nahi duen, irekiduraz eta liseriketarako jarreraz.
2. Jarrera **autozentratu aurkaria** da bigarrena. Joera globalak oro har edo gehienetan txartzat hartu eta haiekiko aurkakotasunean elikatzen da.
3. Jarrera **hetero-zentratu moldatzailea**. Oharkabean bada ere, patroi aski hedatua da gure iritzi-gidari eta erreferente intelektualen artean. Zentroa ez du jartzen hainbeste norberarengan; zentroa eta erreferentzia bestea da, mundua, globalitatea, herrialde erreferentzialak, eta moldatu egin behar da datorrenera.

Ez dira diskrurtso-multzo puruak, jakina. Askok dute apur bat denetik, eta behar ere, iruditzen zait denetik beharko dugula gure kulturgintzaren bidean, autozentratutik eta heterozentratutik.

Gizarte-ehuna

Markoa kokatzen segitzeko, esango nuke garrantzi handia ematen diogula lan honetan gizarte-ehunaren tokiari. Gure komunitate honen eragileen analisia egiterakoan, kontuan hartu behar da euskal komunitatearen konfigurazioan gizarte-ehunak duen garrantzia. Izan ere, alde batetik hiztun komunitate modura ahuldade inportanteak ditugu, tainarenengatik, lurralde-erakundetzearengatik, demolinguistikaren aldetik, hainbat aldetatik. Indargune batzuk ere baditugu eta horiei erreparatu behar diegu. Gure indarguneetako bat komunitate-ehuna sortzeko joera da, eta daukagun gizarte-kapital aberats xamarra, bereziki, hiztun-komunitatearen inguruan.

Hasteko, euskaldun izatearen kondizio soziolinguistikoa berezia da. Uste dut hau azpimarratzea inportantea dela. Nahimen, igurtzi sozial eta borondate pertsonal bat eskatzen dio euskal hiztunari kondizio horrek. Ez gara hiritar estandarrak, ikuspegi linguistikoan. Badakit gure ahalegin politiko borondate onekoa dela euskaldun hiritar estandarraren eskeman gu kokatzea, ahalegin normalizatzaila. Ahalegin normalizatzailak daukan arriskua da sortzen duela normalizazio-hipotesi bat eta normalizazio-fikzio bat, oharkabea. Eta askotan normalizazio-fikzio horrek botila benetan nondik husten ari zaigun ikusten ez digu uzten. Ez baikara normalak. Besteak beste, nik euskaraz bizi ahal izateko nahimen eta borondate bat behar dudalako: ahalegin bat behar dudalako, tentsio txiki bat delako niretzat tabernan euskaraz eskatzea, badakidanean zer gertatuko zaidan, euskaraz bizitzen saiatzea, euskarazko produktuak aukeratzea eta abar. Badakit hala dela eta nire parte bat da. Badakit, gainera, nire seme-alaben belaunaldian ere hala izango dela. Hori madrildar bati ez zaio eskatzen, ez gasteiztar estandar bati ere, ez atxalbatar erdaldun bati ere. Ez gaude hiritar estandar baten eskeman ahalegin linguistikoari dagokionean. Barnera dezagun errealtatearen parte hori, normalizazio-fikzioak gauza batzuk distortsionatu egiten dizkigu eta normalizazio-paradigmarekin gauza askotan ez goaz urrun.

Esan dugu euskaldunaren kondizio soziolinguistikoa berezia dela, nahimen eta borondate pertsonal ezohiko bat eskatzen duena inguruko hizkuntza-komunitateekin konparatuz. Nahimen horrek elikatzea eskatzen du, biziko bada, eta dinamika bereziak eskatu ditu orain artean, ametsa elikatzekotan. Zentzu horretan, euskal izaerak etorkizun zantzazkoa edo txikia du anomia sozialean isolatutako norbanako estandarraren eskeman. Anomia sozial hori ere izango dugu gure gizarteko osagai, baina ez da joera bakarra izango. Bere etxean kontsumituz komunitatetik eta zirkuitu sozialetatik gero eta kanporago dagoen giza-

Ez baikara normalak. Besteak beste, nik euskaraz bizi ahal izateko nahimen eta borondate bat behar dudalako: ahalegin bat behar dudalako, tentsio txiki bat delako niretzat tabernan euskaraz eskatzea, badakidanean zer gertatuko zaidan, euskaraz bizitzen saiatzea, euskarazko produktuak aukeratzea eta abar.

kiaren irudikapen horretan, gure komunitateak desabantaila guztiak ditu. Esan dezakegu kliketan, esate baterako, inportantea dela euskara gehitzea, gaitzea. Horrekin bakarrik ez goaz urrun, milioika klik-aukera daude gureak baino hobeak eta eskura. Hautu-gizakiak izango gara, eta euskaltasunaren zuntzek sareak beharko dituzte.

Euskal izaerak berak etorkizun zaila du anomia sozialaren norbanakoaren eskeman, edo eskema horretan soilik. Giza sarea, komunitate-ehuna, gizarte-ekimeneko erakundeen trama berebizikoa da, eta izango da datozen hamarkadatan. Edo beste hizkuntzetan baino berebizikoagoa zentzu horretan. Horrek inplikazioak ditu norabideak pentsatzerakoan gauza gehienetan: gure erakunde sozialen erakundetze-estrategian, gure ereite-estrategian, gure unibertsitate-estrategian eta abar. Esate baterako, behar dugu edo ez euskal unibertsitatea? Erantzuna ez da erraza, baina gai hori esaten ari garenekin lotuta dago. Eta baita gaur ahoan dugun kulturgintzaren strategiarekin ere. Luzatzen ari naiz hitzokin, baina iritsiko naiz kulturgintzara.

Kontua ez da ukatzea gure izaera fragmentatua. Neroni gizaki fragmentatua naiz, beste hizkuntzetan kontsumitzen dut asko, eta laugarren hizkuntza batekin ari naiz, eta zalantzak sortzen dizkit euskarazko sorkuntza kontsumitzeak, maila indibidualen arlo batzuetan ez naiz bereziki leiala. Iruditzen zait, ordea, nire euskaltasuna eta nire euskarahautua zirkuitu edo sare jakin batzuetan erreproduzitzen dela, hor hartzen eta ematen duela indarra. Ikus dezagun zein diren gurea bezalako hiztun komunitate minorizatu baten etorkizuneko zuntzak eta etorkizuneko garabideak, gauden egoeran gaudela eta aurreikusi daitekeen egoeran kokatuta.

Esango nuke gizarte estandarrean normal izateko diskurtso horrek akatsa duela, partzialki. Pertzepzio-akatsa, analisi akatsa eta norabide-akatsa. Eta hori ikusteko uste dut ibili behar dela bazterretan. Ikusi behar da benetan zer zirkuitutan ari den erreproduzitzen euskararen motibazioa, eta euskaldun kontziente eta kompetenteak diren hiztunak zer zirkuitutan bizi eta berritzen diren.

Gizartea irudikatzen da erakunde ofizial handiek (gobernuak, hezkuntza erakundeak eta hedabideak...) eta gero askatasun indibidualak osatua. Euskararen bizitasun soziolinguistikoa beste maila bateko sareei esker erreproduzitzen da gaur eta hemen. Mila modutara birsortzen den giza kapital ezohiko horrek ematen dio bizitasuna. Input-uholde batean biziko gara eta biziko dira, eta input-uholde horretan gero eta zailagoa dauka euskarak inputak gehitzeko planekin bakarrik. Hori, beharko du: input-uholde horretan bereak jartzea; bere klik-aukerak eskaintzeko aha-

leginak egitea beharrezkoa izango da. Baina ez dio horrek eutsiko. Garrantzitsua da espazio horietan egotea, baina hiztun komunitatearen zuntzak ez dira horietan erreproduzitzen. Gaur eta hemen gure komunitatearen zuntz kualitatiboak ez dira hor erreproduzitzen. Ikusi behar dugu horiek non erreproduzitzen diren. Eta dinamika horiei adi egon.

Zentzu horretan esango nuke biak aipatu behar direla: giza-sarea eta internet sarea. Gaur egun bada joera bat pentsatzeko internet izango dela gure salbabide berria. *Zabalbidea* esango nuke nik, baina *salbabide* gutxi dago hemen. Denetik egin beharko da. Edozein kasutan, gizarte-zuntza oinarri hartuta.

Ohartzen naiz alde bat azpimarratzen ari naizela, beharbada beste diskurtso batzuen konpentsazio gisa. Aitortzen dut begiratu partziala dela, aspektu batzuk indartu nahi ditut hitz jario honetan. Dena dela, deituak gaude zuhaitz osoari begiratzeraz: euskararen garapenaren estrategiaren zuhaitz osoari. Zein dira enbor-adarrak? Zein adarrak? Zein adaxkak eta txotxak? Denak dira zati, baina txotxak eta enborrak ez dira gauza bera. Ikuspegi estrategiko oso hori egiten hasteko garaian gaude. Eta uste dut ez garela ari.

Komunitate-ehuneko zirkuituetan indargunea badugu, esanguratsua zaigu *herria kultura kontsumitzaile* ala *herria kultura-sortzaile* binomioa. Gogoan dut duela urte batzuk Debagoieneko kultura-teknikariak galdezka etorri zitzaizkigula iritziak emateko kultur politikaren inguruan, nagusiki programazioan zentratuta: zer programatu herritarrentzat? Kontua zen hori ez zela galdera posible bakarra. Aretxabaletako herriarentzat zer programatu pentsatu behar dugu soilik ala Aretxabaletako herriak zer kultura sor dezakeen eta sortzen duen? Nola sustatu Aretxabaletako herriaren kultura-sorkuntza, eta horren ospakuntza sinbolikoa, jaia eta beste potentzialitate horiek?

Arlokako ekosistemak

Beste oinarrietako bat **ekosistema** kontzeptua da. Esan daiteke euskal kulturgintzan arrakasta eta estrategia egoki xamarrak landu dituztenak beren eremua ekosistema moduan antolatuta izan dutenak direla. Zer da ekosistema antolatzea? Ba ekosistema antolatzea da sortzaileen erreprodukzioa eta zaintza, hartzaileen integrazioa, zaletasuna birsortzeko estrategiak, sortzaile eta hartzaileen arteko transmisioa, merkatu-parametroak antolatzea, eragile publikoekiko elkarrizketak burutzea, hedabideekiko elkarrizketak, sorkuntzaren kalitatea hobetzea... Kultur arlo hori merkatu-indarren edota administrazioaren esku soilik utzi beharrean, gizarte antolatutik elementuak artikulatzea. Dena da arte bat.

Ikusi behar da benetan zer zirkuitutan ari den erreproduzitzen euskararen motibazioa, eta euskaldun kontziente eta kompetenteak diren hiztunak zer zirkuitutan bizi eta berritzen diren.

Esan daiteke euskal kulturgintzan arrakasta eta estrategia egoki xamarrak landu dituztenak beren eremua ekosistema moduan antolatuta izan dutenak direla.

Gure kasuan pribatu/lukratiboa eta administrazioarekin, binomio horrekin bakarrik, ez duelako funtzionatzen. Binomio horrekin bertsolaritzak ez luke funtzionatuko. Bertsolaritza zergatik dago momentu honetan dagoen lekuan, —ondo edo gaizki, debatea alde batera utzita—? Bertsolaritzak azken 25 urteetan estrategia pentsatuta eta kontzientea eduki du: ekosistema sortzea. Garai hartan intuizten zen eragile publiko eta eragile lukratiboekin bakarrik ez genuela lortuko bertsolaritzarentzat buruan genuen loratzea. Eta orduan erabaki zen bertsolaritzako eragileok gizarte antolatua ikuspegitik helduko geniola arloari, gure ekosistema sortu eta antolatuko genuela, arlo guztietan, erakunde publikoekin eta merkatuarekin lan egiteko, gizarte antolatuarekin lan egiteko, egitasmo zabal bat ipar hartuta eta horretarako bideak etengabe sortuz.

Ekosistemaren kontzeptua azaltzeko bertsolaritzaren kasua aipatu dut, baina uste dut ez duela zertan horrekin lotu, edo ez dela kopiatzeko kontu bat. Bertsolaritzaren baldintzak bereziak dira eta, beraz, ez dago erraz estrapolatzerik, eta bestetik denak du kritikarako marjina. Baina badira elementu batzuk beste kultur arlo batzuetan ere kontuan hartzekoak. Bertso-munduko antolaketa izan ditugu hiru ipar: 1) Belaunaldi-transmisioa antolatzea. 2) sustapena antolatzea eta 3) jakintza antolatzea. Lehena, nola transmititu belaunaldietan, sortzaileen arloa, hartzaileena, gai-jartzaileena, irakasleena, bai hezkuntza arautuan eta baita hezkuntza ez-arautuan, bertso-eskola autonomoetan... Bigarrena, nola sustatu bertso-jarduna, hedapena antolatuz eta zainduz, esparru eta lurralde desberdinetan, hedabideak, sariketak, saturazioa, saioen erreprodukzioa eta hainbat gauza kontuan hartuz. Hirugarrena, bertsolaritzari buruzko jakintza nola landu, egungo jakintza-bideetan nola txertatu, gertatzen ari denaren korpusa nola bildu, sailkatu, ikertu.

Aipatzen ari naizen marko honetan 'merkatu doituaren' ideiaz ere esan nahiko nuke zerbait, ea labur ateratzen zaidan. Merkatuaren diziplina interesgarria da kulturgintzaren aspektu batzuentzat. Goitik datorren diruarekin merkatuaren diziplinari itzuri egiten dion produkzioa berehala hasten da herren egiten, kalitatean eta beste gauza batzuetan. Diru-laguntzarik ezak muturreraino ito dezake kulturgintza ahularen arlo bat, baina diru-laguntzak, aldiz, luzerako moteldu. Nik, aukeran, nahiago zimela motela baino.

Alde batetik, parametro ohikoetan euskarazko produkzioak ezin du iraun arlo batzuetan, eta, bestetik, euskarazko produkzioak merkatu-parametroak behar ditu, merkatuaren mekanismoa behar duela bere metabolismoa hobetzeko. 'Merkatu doituaren' ideian findu beharrean gaudela esango nuke. Beste alor askotan aplikatzen dute gobernuak

merkatu doituaren ideia, berariazko parametroak dituen merkatu-joko berezi bat aplikatzen zaie petrolioari, energiari eta beste hainbat elementuri. Funtzionatzen duen mekanismoa da. Euskal kulturgintzaren alorrean ere, oso beste maila batean, parametro batzuk doituak dituen merkatu-diziplina izan liteke marko egokia hainbat alor antolatzeke. Joko-arau finko xamarrek jarri, merkatu babestuak sortu eta arlo-kide lehia-kideen arteko berdintasun-egoerara jo. Esatea egitea baino errazagoa da, izan ere, literatura-munduan, hedabideen munduan eta abar, merkatu doitze bakoitza arte bat da, asko hitz egin beharrekoa bertako eragileekin. Uste dugu, bere arazoekin, kontzeptu egokia dela.

Eragile analisiaz

Lehen jardun dut gauza batzuk esaten boteregune eta eragileez (estatua, kapitala eta gizarte antolatua...), zati honetan azaldu nahi nituenak, eta orain aipatu bakarrik egongo dut. Gogora ditzagun hiru botere-iturri edo ahalmenak sortzeko hiru guneak. Bata estatua udaletxeetaraino, bere logika administratiboarekin; bigarrena, kapitala, bere nahikunde lukratiboarekin eta hirugarrenik gizarte antolatua bere gainerako nahikunde eta balore-logika desberdinekin.

Alde batetik, merkatuaren eremua saihestezina da gure jokalekuan, bai euskal kulturgintzan ere, bestetik, erakunde publikoak hor ditugu eta garrantzitsuak dira, eta hirugarrenik gizarte antolatuaren eremua zentrala da gure kasuan. Azken 50 urtean gure hizkuntza eta kultura loratzeko prozesu honen gidari, azpiegitura-sare eta gune nagusi gizarte antolatutik sortutako erakundeak izan dira. Eta gaur egun ere, neurri handi batean, Euskararen Gizarte Erakunde deitutako erakunde sorta askotariko eta zabalak jartzen dio azpiegitura nagusia hizkuntzaren martxari, erakunde publikoek sortutako beste hainbat prozesu giltzarrirekin batera. Beharbada, gizarte-ekimenetik euskararen hiztun-komunitateak bere buruari eman dizkion erakunde sozial horiek dira nolabait geure hiztun-komunitatearen erdigune sinboliko eta estrategikoa. Berariaz euskararen hausporako sortutako erakunde sozial horiek guztiak dira nik "hiztun komunitatearen geruza antolatua" deituko nukeena, hasi ikastoletatik, euskaltegiak, hedabideak, tokiko mugimenduak, korpusa lantzen duten elkarteak, kulturgintzako erakundeak eta abar luzea. EGEen espazio zabal hori artikulatu eta gidaritza sinboliko nahiz estrategikoa sortzea berebiziko zeregina da. Horretarako tresna batzuk sortu ziren, baina uste dut ez dela funtzioa egoki bete. Dena den, esango nuke aukera oraindik eskura daukagula, inoiz baino beharrezkoago. Hiztun komunitateak bere baitatik berariaz sortutako erakunde sozialen sare honek,

**Euskal
kulturgilea,
sortzailea,
kulturgile
moduan, hiruko
horren artean
(merkatua,
erakunde
publikoak eta
erakunde
sozialak) dago
nolabait, edo
hirurek dute
beregana eragina,
arloan bakoitzean
modu
desberdinean.**

bere gidaritza sinboliko eta estrategiko hori erakunde publikoekin partekatu dezake, lurralde desberdinetan.

Euskal kulturgilea, sortzailea, kulturgile moduan, hiruko horren artean (merkatua, erakunde publikoak eta erakunde sozialak) dago nolabait, edo hirurek dute beregan eragina, arloan bakoitzean modu desberdinean.

Gure kasuan, bereziki eragileak dira euskalgintzaren inguruko erakunde, azpiegitura eta enpresa sozialak batetik, eta erakunde publikoak bestetik. Lehenbizikoan esparruan, inora begira jartzen hasi aurretik bada berraztertzea beharrezko etxekolanak, arloan antolatzen, estrategiak fintzen eta abar. Horren ondoren, bi zirkulu horien, bi erakundetze, bi ahalmen-gune horien artean arteko lana eta kanal iraunkorrak sortzea izango da gako bat.

ESTRATEGIAK

Luzeegi joan zait ahozko jarduna markoa jartzerakoan, eta tarte txikiegia geratzen da estrategiak aletzeko. Hamar estrategia formulatu ditugu aipatutako ideia horietatik abiatuta. Egia esan, izan zitezkeen gehiago edo gutxiago, momentuko argazki bat da. Seguru asko gehiegi dira gaur egin dezakegunerako, eta gutxiegi behar dugunerako. Hainbat erakundetan ajendako puntu batzuk eta programak kokatzen hasteko balio dezaketela uste dugu, nolana ere. Horrela laburtu litezke:

1. Euskal kulturgintzako eragile sozialak eta gizarte-erakundeak artikulatzeko pausoak ematea. Artikulazio hau bi mailatan gauzatu beharrezkoa da. Batetik, euskal kulturgintzaren esparru bakoitzaren barruan, eta bestetik, esparru desberdinen arteko eremu orokorrean. Artikulazio honen elementu batzuk badira gaur egun —artikulatua dago bertsolaritza esparrua, edota edizio munduan etab. bada artikulaziorik— baina beste espazio batzuk falta dira, bai eta arloan arteko sarea ere.
2. Euskal kulturgintzaren esparru edo adierazpide bakoitza beren esparrua ekosistema moduan lantzen hastea eta berau biziberritzeko elementu nagusien plangintza egitea hiru arlotan: transmisioa, sustapena eta jakintza.
3. Tokian tokiko gizarte-eragileak eta tokian tokiko eragile publikoen indarrak norabide honetan jarriz, herri eta auzoetako kulturgile kolektibo eta sortzaileen konexioa sustatzea. Herrietako abesbatza, musika talde, bertso eskola, antzerki talde, sortzaile, musika eskola eta abarren konexioan dagoen potentziala aktibatzea. Honekin batera

jaiak espazio sinboliko moduan dituen potentzialak birsortzeko proiektuak sortzea.

4. Maila orokorrean eta esparru bakoitzean, euskal kulturgintzaren belaunaldi-transmisiorako bideak sortzea. Batetik, sortzaileak birsortzeko sortzaile-transmisioa bilatuz, bestetik parte hartzaileen transmisioa bilatuz bereziki parte hartzean oinarritutako adierazpideen kasuan, eta hirugarrenik zaletasun-transmisioa bilatuz. Hone-tarako esparru bakoitzak bere bideak izan ditzake, formazio ez-arautuaren forma desberdinen bidez, formazio arautuak antolatuz, daudenak baliatuz edo beste motatako transmisio bideak jorratuz.

5. Hezkuntza arautuan euskal kulturgintzaren transmisioa txertatzea, ikastetxeen jardun curricularrean. Estrategia hau nolabait aurrekoaren barruan dago, baina badu autonomia propio bat.

6. Euskal kulturgintzaren adierazpide bakoitzean 'merkatu doituaren' parametroak landu, adostu eta modu dinamiko batean inplementatzea. Honek aurretik eskatzen du arlo bakoitzean tentu handiz egindako analisi-prozesu bat, eta horretarako eragile sozial eta publikoen arteko interlokuzioa sortzea.

7. Euskal kulturgintzaren hedapen edo erresonantzia-kutxa antolatzea Euskal Herriko hedabide-sisteman. Hedabide nagusiek eta herri-eskualde mailakoek joka dezaketen funtzioa aztertu beharra dago euskal sorkuntzaren erresonantzia hobetu eta ziurtatzeko, gure baliabideak arakatuz, beste herrialdetako esperientziak aztertuz, lege-aukeretatik hasi eta programa zehatzetarainoko azterketa zabalean.

8. Euskal kulturgintzari buruzko jakintzaren arloa indartu eta artikulatzea. Euskal kulturgintzari buruzko dokumentazioa, ikerketa, gogoeta, bilketa eta formazioa eskaintzen duten guneak sustatzea, sortzea eta beren arteko elkarlan espazioa eratzea. Aurrekoari loturik, euskal kulturgintzari buruzko ikasketak indartzea, bai belaunaldi berrietako gidaritzari begira, eta bai une honetako eragile politiko, kultur teknikari, dinamizatzaile, irakasle eta abarri begira.

9. Euskal sorkuntzaren edukiak internet sarean eta teknologia berrietan txertatzea. Estrategia hau presente egon da azken urtetan eragile publiko eta sozialen kezketan, eta ibilbide labur bat egina duen arren jarraitu eta sakondu beharrekoa da.

10. Euskal kulturgintzaren kanpo-hedapena kuantitatibo eta kualitatiboa lantzea. Euskal lurraldeko erdal komunitateei, hau da, biztanle gehienei, euskal kulturgintzaren hedapen kualitatiboa helaraztea, eta mundu mailako presentzia guneak lantzea. ●

***Hedabide
nagusiek eta
herri-eskualde
mailakoek joka
dezaketen
funtzioa aztertu
beharra dago
euskal
sorkuntzaren
erresonantzia
hobetu eta
ziurtatzeko, gure
baliabideak
arakatuz, beste
herrialdetako
esperientziak
aztertuz, lege-
aukeretatik hasi
eta programa
zehatzetarainoko
azterketa
zabalean.***